

GEOPARKEKO BARRUALDEKO PAISAIA LANTZEKO PROPOSAMEN DIDAKTIKOA

Hartzaileak

Lehen Hezkuntzako seigarren mailako ikasleak.

Jarduera hau ondoko kompetentziei erantzuteko tresna da:

- Hitzezko eta hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako kompetentzia.
- Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia.
- Elkarbizitzarako kompetentzia.
- Zientziarako kompetentzia.
- Teknologiarako kompetentzia.
- Hizkuntza- eta literatura- komunikaziorako kompetentzia.
- Arterako kompetentzia.
- Jasangarritasunerako kompetentzia.

Helburu didaktikoak

- Lasturko paisaia karstikoa ezagutzea.
- Inguruaren arazoei irtenbideak bilatzeko gaitasuna lantzea.
- Ondasun naturalen kontserbazioko arazoen inguruko sentsibilizazioan sakontzea.
- Irtenbideak abian jartzeko parte-hartzea sustatzea.



Edukiak

Ondare naturalari dagokienak.

Geologia

- Paisaiaren irakurketa: karsta, haitzuloak, kobak, harri motak.
- Ur korronteak eta hauen eragina paisaia karstikoan.
- Klimaren ezaugarriak eta hauen eragina paisaia karstikoan.
- Baliabide geologikoak: esaterako, Lasturko harria eta ur-errota.

Biologia

- Biodibertsitatea: zer da, bertako landareak eta animaliak.
- Baliabide naturalak eta hauen aprobetxamendua: elikagaiak, energia hidraulikoa.
- Ekosistemaren oreka eta garapen iraunkorrerako irtenbideak.
- Babestutako eremuak: zer dira, zein da haien garrantzia.

Ondare kulturalari dagokienak

- Ohiturak, gizakia eta naturaren arteko lotura.
- Historiaurrea: bertako aztarnategiak.
- Lanbide zaharrak: errotak, harrobia, etab.
- Bestelakoak: Herri kirolak, pertsonaiak, toponimoak, eta abar.

Oinarriak

Proposamen didaktikoak:

- Inguruaren ezagutza ahalbidetzen du, metodologia ludiko eta esperimentalaren bitartez.
- Ikasleen partaidetza lehenesten du, elkarren artean lan eginez eta ondorioak elkarlanean aztertuz.
- STEAM oinarritzat izanda, hainbat diziplinetako ikasgaiak uztartzen ditu.
- Eskolako Agenda 2030 metodologiarekin bat egiten du.
- Ikas-egoera eta erronkak proposatzeko metodologian oinarritzen da, hau da, ikasleek egoera ekosozialekin zerikusia duten egoerak konpondu behar dituzte, eta eskura dauden baliabideak modu integratuan erabili behar dituzte.
- Egitaraua ikastetxeen beharretara egokitzen da, eta metodologia zein material didaktikoa eskaintzen du. Gainera, eskola bakoitzaren ICPa kontuan hartzen du.
- Nazio Batuen “Garapen Iraunkorreko Helburuak” bereganatzen ditu.



Metodologia

Proposamenak **ikas-egoerak** lantzeko metodologian du funtsa:

- Egoera hori konplexua izango da, eta ikasleak lortutako hainbat jakintzagai mobilizatzea eskatuko du (kognitibo-, gizarte- edota afektibitate esparruan).
- Ikasleak egin beharreko produkzio jakin bat proposatuko du.

Garapena

Proposamen didaktikoa **hiru saioetan** garatu ohi da:

- Lehena **ikasgela**n, testuingurua eta ikasleen aurre-ideiak ezagutu eta lanak antolatzeko. Saio hau, Geoparkeko hezitzaileak emandako argibideak jarraituz, **eskolan egingo da irakasleak gidaturik**.
- Bigarrena **kanpoan**, esperimentazioaren bitartez ikasleen partaidetza bultzatu eta inguruaren behaketa zuzena bideratzeko. **Irteera Geoparkeko hezitzaileek gidatuta egingo da**.
- Hirugarrena **ikasgela**n, ondorioak atera eta elkarrekin konpartitzeko. Kasu honetan ere, Geoparkeko hezitzaileak emandako argibideak jarraituz, **eskolan egingo du irakasleak**.



1. saioa: Testuingurua eta aurre ariketak.

Saio hau bi zatitan egiten da. Lehen zatia saio teorikoa izango da, azalpenak emateko diapositiba eta bideo formatuan egindako aurkezpenaren bitartez. Bigarrena, berriz, saio praktikoa izango da, ikasleen partaidetza bultzatuko duten ariketak ginez eta landa lanerako erronkak prestatuz.

2. saioa. Landa lana.

Bigarren saioa landa irteera da eta Lasturren egiten da. Landa irteeran hainbat behaketa burutuko dituzte ikasleek, eta behaketa guzti hauek 3 alorretan banatu dira: Geologia, Natura eta Kultura ondarea.

Irteeran hainbat ikerketa proiektu edo erronka proposatuko dira. Ikasleak erronka hauek taldeka egingo dituzte eta hirugarren saioan bilduko dira egindako emaitzak. Hala, hauek dira talde txikietan egin beharreko behaketak eta lanak:

1. Geologiari lotutakoak

- Debako harriak identifikatzea.
- Erliebe karstikoaren elementuak ezagutzea.
- Bailararen bilakaera geologikoa ezagutzea.
- Paisaiaren irakurketa.
- Lasturko fosilak.

2. Naturari lotutakoak

- Elikadura katea osatzea.
- Landareak identifikatzea.
- Hegaztien jolasa.
- Ingurunearen kalitatea aztertzea.

3. Kultura eta ondareari lotutakoak

Milia Lasturkoa bertsoa.



3. Saioa: Ondorioak bereganatzea eta landa koadernoan osatzea

Proposamen didaktikoa burutzeko saioan honako ekintzak garatuko dira:

- Bigarren saioan landutako edukiaren errepassoa.
- Lehen saioan ikasleen aurre-ideiak ezagutzeko ariketaren errepikapena. Horrela, ikasleek bereganatu duten ezagutzaren jarraipena egiten da.
- Lehen saioan taldeei bidalitako ikerketa lanaren edo erronken emaitza aurkeztuko da besteen aurrean.
- Lasturko ondarea ezagutzera ematen duen “Scrapbooking” edo landa koadernoan osatzea. Geoparkeko lantaldeak liburuxka hau egiteko beharrezko materialak eskainiko du: hala nola, irudiak, kartoi-meheak, itsaskorrak, argazkiak, txantiloak, anilak, mapak,...
- Ikasle zein irakasleen balorazioa jasotzeko ebaluazioa orriaren banaketa.

Saioa, edo propio aukeratutako beste bat, proposamen didaktikoaren ebaluazioa egiteko baliatuko da.

Egoera ekosoziala, etorkizuna hobetzeko erreminta gisa

Egoera ekosozial zehatz baten proposamenaren bitartez, Geoeskolak programak inguruko arazoak ekarri nahi ditu gelara. Hala, ekologiaren, ekonomiaren eta gizarte-ongizatearen elkarreraginak —elkarreragin horiek definitzen baitute egoera ekosozial deritzona— bistaratuko dira eta ikasleak etorkizuna aldatzeko lanean jarriko dira, parte hartzeko aukera emango zaie eta aldaketa eragiteko norberaren eta gizarte osoaren papera nabarmenduko da.

Geoparkeko barruko paisaia lantzeko proposamen didaktikoak ikasleei proposatuko dien egoera ekosoziala hauxe da:

Azken urteotan, pinuen gaitza bat dela eta, ia pinudi guztiak erroetik moztu behar izan dituzte, lurzorua bistan geratu da eta higadura arazoak areagotu dira.

Pinudiak kentzerakoan alternatiba bat baino gehiago dago mahai gainean: lurra geratzen den bezala utzi, pinuak egon aurretik zeuden zuhaitz autoktonoak landatu, azken hamarkadetan bezala egurra azkar ateratzeko espezieak landatu, edo azken bi horien konbinazio bat egin.

Orduan, ikasleen arteko eztabaida proposatuko da. Taldeetan banatu, bakoitzari jarrera bat defenditzeko esan, argudioak lantzeko tartea hartu eta, bukatzeko antolatutako eztabaida egin.



Proposamena lehen saioan egingo da, baina hiru saioak zeharkatuko ditu, bigarreanean lekua egoerak planteatutako ikuspegiekin behatu behar delako eta ebazpena azken saioan egingo baita.